

***Euskara eta bere didaktika I* ikasgaia lantzeko esperientzia bat gaztelaniazko adarrean**

Aintzane Martinez de Lagran Etxeberria (ikaslea) & Edu Zelaieta Anta (irakaslea)

Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika, EHU

Didáctica de la Lengua y la Literatura, UPV

aintz@hotmail.com & edu.zelaieta@ehu.es

RESUMEN¹

En este artículo, damos cuenta de una experiencia llevada a cabo en la Escuela Universitaria de Magisterio de Vitoria-Gasteiz a lo largo del curso 2009-2010. Dicha experiencia se ha realizado en el marco de la asignatura *Euskara y su didáctica I*, en la rama de castellano, en el primer curso de la especialidad correspondiente a Educación Infantil.

La experiencia didáctica en cuestión se basa en un trabajo realizado por una alumna de primer curso y el profesor de la materia: trabajar la didáctica de la lengua vasca desde la planificación, realización y revisión de un cuento infantil elaborado por la propia alumna. Como parte final de este proceso de aprendizaje y para provocar la reflexión metalingüística, la alumna expone en un día de clase toda la experiencia vivida a sus compañeras de asignatura.

Queremos, por tanto, hacer constatar tres hechos: (i) que es posible trabajar la didáctica del euskera (también) en la rama de castellano, (ii) que es posible realizar tareas conjuntas a lo largo del curso entre el profesorado y el alumnado universitario, y (iii) que es posible implicar al alumnado de primer curso en dichas tareas. La redacción de este artículo *a cuatro manos* da fe de lo dicho hasta ahora.

Palabras clave: Euskara y su didáctica I, competencia comunicativa, trabajos entre profesorado y alumnado, cuentos infantiles.

LABURPENA

Artikulu honetan, Gasteizko Irakasle Unibertsitate Eskolan izandako esperientzia didaktiko baten berri ematen da. Esperientzia hau *Euskara eta bere*

¹ Amaia Alvarez Uria irakasleari artikulu honi ohar aberasgarriak egin izana eskertu nahi diogu.

didaktika I izeneko ikasgaian gauzatu da, gaztelaniazko adarrean, Haur Hezkuntzaren espezialitateari dagokion lehen mailan, 2009-2010 ikasturtean.

Argitara ekarri nahi dugun esperientzia didaktiko hau lehen mailako ikasle batek eta arloko irakasleak elkarlanean egingo da: ikasleak euskararen didaktika lantzeko asmoz, ikasleak berak sortutako haurrentzako ipuin bat planifikatzea, idaztea/kontatzea eta aztertzea. Prozesu honi amaiera emateko eta hizkuntzaren gaineko gogoeta eragiteko, ikasleak bizi izandako esperientzia azaldu die bere gelakideei eskola batean.

Honenbestez, hiru kontu azpimarratu nahi ditugu: (i) euskararen didaktika gaztelaniazko adarrean (ere) lantzea posible dela, (ii) irakasle eta ikasleen arteko lanak ikasturtean zehar gauzatzea posible dela, eta (iii) arestiko lanetan lehen mailako ikasleak inplikatzea posible dela. Artikulua *lau eskutan* idatzi izana esandakoaren frogagarri da.

Hitz gakoak: Euskara eta bere didaktika I, ikaslearen eta irakaslearen arteko lanak, gaitasun komunikatiboa, haurrentzako ipuinak.

0.SARRERA

2009-2010 ikasturtean zehar egin dugun proposamen didaktiko honek helburu nagusi bat eduki du: eskoletara etortzerik ez duen ikasle batek euskararen didaktika modu benetako eta interesgarri batean lantzea. Beste modu batera ere adieraz genezake arestiko xedea: eskoletara ezin etor daitekeen ikasleari hizkuntzaren didaktikan trebatzeko lanabes aproposak ematen saiatzea; izan ere, ikasle eta irakasle ugari maiz adierazia dutenez, ikasturte bukaerako azterketa bakarraren sistema ez da prozesu egokia ikasle batek zinez ikasteko.

Hortaz, *Euskara eta bere didaktika I* ikasgaian ipuingintza lantzen dugula kontuan harturik, irakasleak (Eduk) proposamena luzatu zion ikasleari (Aintzaneri), hizkuntza ikuspegi komunikatiboaz lantzeko: Aintzanek haurrentzako ipuin bat sortu behar zuen, gero benetako haurren aurrean kontatzeko; ipuinaren kontatzeko saioa grabatu egingo zen ikasleak eta irakasleak azken emaitza baloratzeko. Hizkuntzaren didaktikan ohikoa den eskemarekin lan egin dugu, alde horretatik: testua planifikatu, testu ekoiztu eta testua errebisatu (Camps 2003).

Artikuluaren egiturari dagokionez, sarrera honetaz gain, beste lau atal aurkituko ditu irakurleak bibliografiara eta eranskinetara heldu aurretik: (1) Metodologiaren alderdiak, (2) Prozesuaren kontakizuna lehen pertsonan, (3) Ikasitakoak zerrendatzen eta (4) Ondorioak. Bigarren eta hirugarren atalak singularreko lehen pertsonan idatziak dira, hots, Aintzanek berak bizi bezala daude irakurgai: ikaslea ikasteko prozesua nola

bizitzen ari den jabetzeko parada ezin hobea delakoan gaude. Hori dela eta, hain zuzen ere, lehen pertsona horretan uztea erabaki dugu, testigantza zuzena eta fidela izan dadin.

Eranskinetan, berriz, Aintzanek euskaraz sortutako ipuina dago, bai eta ipuina sortzeko erabili zuen hasierako fitxa ere.

1. METODOLOGIAREN ALDERDIAK

Aintzaneren soslai

Baina nor da Aintzane? Zein soslai akademiko izan du gure eskolara iritsi baino lehen? Zein zen bere euskara maila ikasturtearen hasieran? Zergatik ezin izan da eskoletara etorri? Galdera hauek guztiek nolabaiteko erantzuna behar dute zein ikasle motaz mintzatzen ari garen ongi ohartzeko eta lerro hauen bidez proposatzen ari garen eredu didaktiko hau ongi ulertze aldera.

Esan dezagun, lehenik eta behin, Aintzaneren soslai gero eta ohikoago bihurtu dela azken urteotan Irakasle Eskoletan: ikaslea lanean ari denez, ezin da eskoletara etorri; beraz, zer egin behar duen ikasgaia gainditzeko irakaslearen bulegora joan da ikasturte hasieran; bestalde, ez dator zuzenean Bigarren Hezkuntzatik; Aintzanek ez ditu 18 urte, 25 baizik; unibertsitatara iritsi bitarteko ikasketak arautuak B eremuan eginak zituen bere sorterrian, Gasteizen; azken urteotan, ordea, euskara utzi samar izan omen du (hori izan zen bere aitorenpenetako bat lehen bileran).

Aintzaneren soslai gero eta ohikoa dela esan berri dugu gorago, besteak beste, *ikasle ez presentzial* ugari dugulako Irakasle Eskoletan edota euskaraz komunikatzeko gai diren ikasle asko karrera euskaraz egitera ausartzen ez direlako. Zer egin daiteke halako ikasleen kasuan? Ondoko lerroetan luzatu gogo dugu proposamen bat.

***Euskara eta bere didaktika I* ikasgaiaren deskribatzaileak eta helburu nagusiak**

Irakaslearen soslai agertu ondok, gure ikasgai honen deskribatzaileak eta helburu nagusiak adierazteko garaia da².

1. Ikasgaiaren deskribatzaileak:

Euskal hizkuntzaren ezagutza eta erabilera, bai aldaki bateratuaz zein euskalkiez. Euskararen didaktikaren oinarriko printzipioak.

2. Ikasgaiaren helburuak:

² Ondoko informazio hau Gasteizko Irakasleen Unibertsitate Eskolako webgune ofizialetik eskuratu dugu (ikus bibliografian)

Euskara eta bere didaktika I ikasgaia bukatutakoan, ikasleak oinarrizko euskararen lau trebetasunak garatu behar ditu. Beronen ezagutzak eta mailari dagozkion gaitasun linguistikoak ulermen eta produkzio mailakoak izan behar dute, ikasleak eskolan euskara erabiltzeko gai izango dela bermatzeko.

Gainera, euskararen didaktikaren oinarrizko zenbait kontzeptu eskuratzea ere ikasgai honen helburu nagusienetakoa da.

Informazio ofizialaren arabera, batetik, hizkuntzaren ezagutza eta erabilera bermatu behar dira eta, bestetik, hizkuntzaren lau trebetasunak (entzumena, irakurmena, idazmena eta mintzamena) garatu behar dira, bai eta didaktikaren zenbait printzipio ere. Hortaz, hurrengo urratsa honako hau izan daiteke: gure esperientziak arestiko ezaugarriak betetzen ote dituen berrestea.

Gure esperientziak izan dituen ezaugarriak. Oinarri teoriko zenbait.

Ikasleak ipuin bat pentsatu, idatzi eta kontatu du; halaber, irakaslearekin harremanak izan ditu ahoz bulegoan eta idatziz posta elektronikoan; bukatzeko, bere esperientziaren berri eman die ikaskideei ahoz gelan eta prozesuaren gaineko gogoeta idatzi du irakaslearekin komentatzeko. Hau guztia, esan gabe doa, euskaraz gertatu da. Beraz, Aintzane euskaraz pentsatu (sortu) du, euskaraz idatzi du (ipuinerako fitxa, ipuina, gogoetak eta mezu elektronikoak), euskaraz irakurri du (berak idatzitako guztia eta irakasleak bidalitakoak), euskaraz egin du berba (bulegoan, ipuina kontatzen, lana gelan azaltzen) eta euskaraz entzun du (irakaslearekin bulegoan eta ikaskideekin gelan). Hitz batez, hizkuntzaren lau trebetasunak garatu ditu, ongi garatu ere, testuinguru errealean eta berariazko ikuspegi komunikatiboaz.

Esperientzia honen ardatza ikasleak ipuin bat sortzea izan da. Alde horretatik, Joaquim Dolz eta Bernad Schneuwly irakasleek nahiz Labayen irakasleak euren lanetan diotenez, “abiapuntuko ideia honako hau da: idaztea berridaztea da” (ikus bibliografia) . Izan ere, orain Aintzane ere ederki daki, ikaslearen lan nagusia ipuina berriz idaztea izan da. Horri esker ikasi eta trebatu du hizkuntza; horri esker garatu du pentsamendua, euskaraz!

Alabaina, idazketaz gain, ahozkotasuna ere landu izan du Aintzane: irakaslearekiko harreman sarrietan, ipuina kontatzeko orduan eta esperientzia ikaskideei azaltzeko momentuan. Joxerra Garziak bere liburu batean iradoki duen ildotik (Garzia 2008), hiztun (lehenik) eta hizlari (geroago) bihurtu da ikaslea, ahozko komunikazio gaitasuna

lantzeko asmoz. Orobat, gaitasun komunikatiboaren ildotik (ikus Hymes 1972, Canale & Swain 1980 eta Canale 1983), Aintzanek gramatikaz eta gaitasun linguistikoez gain, gaitasun soziolinguistikoak, diskurtsiboak nahiz estrategikoak ere garatu behar izan ditu ipuinaren fase guztiak behar bezala gauzatzeko. Hots, ikasleak hizkuntza komunikazioaren zerbitzuko jarri izan du, funtsean.

Hitzarmen didaktikoa. Lanaren sekuentzia.

Ikaslea hasieratik inplikarazi nahian, irakasleak hitzarmen didaktiko bat proposatu zuen ikasturtearen hasieran: ikasleak *Euskara eta bere didaktika I* gainditzeko eta ikasgaian benetan trebatzeko, euskarazko ipuingintza landu behar zuen; trukean, irakasleak ikasturte osoan zehar lana pautatzeko, gidatzeko eta zuzentzeko konpromisoa hartu behar zuen. Bi aldeak ados jarri eta ondoan, segidan azaldu behar dugun metodologia erabili izan da ikasturtearen hasieratik:

- 1- Ikaslearen eta irakaslearen arteko lehen bileran, irakasleak euskararen didaktika jorrazteko lan bat egiteko proposamena luzatu zion irakasleak ikasleari: haurrentzako ipuin baten inguruan.
- 2- Ipuina ikasleak sortua edo aukeratua izan zitekeen (bigarren hautu hau hartuz gero, iturri bikoitza esplizitatu zen: Euskal Tradizioko ipuina edo Literatura Unibertsalekoa). Ikasleak ipuina berak sortzea erabaki zuen (hizkuntzan trebatzeko aukera interesgarriagoa dena, ageri denez).
- 3- Hasierako planak bi fase garbi zituen, honenbestez: ipuina idaztea eta ipuina kontatzea.
- 4- Lehen faseari ekiteko, testua planifikatua izan zedin, irakasleak ipuinaren fitxa eskatu zion ikasleari (ikus eranskinetan).
- 5- Ipuinaren nondik norako nagusiak adostu eta gero, testuaren idazketa etorri zen ondotik. Ipuina idaztean ohiko arazoak gertatu ziren, gero Aintzanek berak azalduko digun bezala; hala ere, ikaslearen eta irakaslearen arteko lankidetzari esker, gainditu egin ziren.
- 6- Ipuina pentsatu eta idatzita, kontatzeari ekiteko garaia zen. Fase honetan, ordea, arazo handiagoak izan genituen: ez genuen egiazko publikorik lortu eta Aintzanek kamera huts eta hotz baten aurrean kontatu behar izan zuen ipuina. Emaidza, zalantzarik gabe, ez zen espero genuena izan. Haurrik gabe ez baitago ipuinaren magiarik. Nolanahi ere, ipuinaren ahozko lanketa egin genuen, bai eta ipuina bestelako osagarri eszenikoez hornitu ere.

- 7- Ipuinaren saio grabatua ikusi eta komentatu genuen bulegoan, ahozko testua errebisatu genuen.
- 8- Ordura arte egindako urrats guztien gaineko balorazio idatzia eskatu zion irakasleak ikasleari, azken hau prozesuaren jabe egin zedin.
- 9- Prozesuaren gaineko gogoeta idatzia komentatu eta ondoan, lana ikaskideen aurrean azaltzeko aukera eman zion irakasleak ikasleari, ikasgaiaren eskola arrunt baten barruan.
- 10- Aintzane, lehen eta azken aldiz, eskola batera etorri zen berak egindako lana azaltzera. Ikaslea, ikaskideak eta irakaslea pozik eta gustura gelditu ginen azalpenarekin: zalantzak eta elkarrizketa naturala sortu ziren gelan. Ondorioz, ikaskideek ipuina fotokopiatzeko eskaera egin zuten; bai eta bakarren batek, astirik izanez gero, ipuina antzetzeko aukera nabarmendu ere.
- 11- Gelan egindako aurkezpenaren gaineko hausnarketa eskatu zion irakasleak ikasleari, idatziz berriz ere. Halaber, ikasgaia baloratzeko orri bat eman zion Aintzane lanaren bidez ikasitako gauzak zerrenda zitzan (ikus 3. atala).
- 12- Ikasgaiari zegokion ebaluazioaz hitz egin genuen beste egun batean bulegoan, irakaslearen segimendua ere baloratuta.
- 13- Azkenik, Aintzane ikasgaiaren bikain bat lortua zuela, irakasleak artikulua hau elkarlanean prestatzea proposatu zion ikasleari.

2. PROZESUAREN KONTAKIZUNA LEHEN PERTSONAN

Hasieratik bertatik aritzeko beharra sumatzen dut *Euskara eta bere didaktika I* ikasgaiaren prozesuaren berri emateko. Konta dezadan neure esperientzia lehen pertsonan.

Edu Zelaieta Anta zen nire irakaslearen izena, hori esan zidaten behintzat idazkaritzara deitu nuenean, interneten ez baitzen izenik agertzen irakasgai honetarako. Bere tutoretzatik pasa nintzen lehenengo eguna, Haur Hezkuntzako 1. mailaren lehenengo lauhilabetekoan izan zen. Ez nekien seguru zer aurkitu behar nuen bertan; irakasleari esan behar bainon bere klaseetara joateko aukerarik ez nuela izango. Esan zidan klaseetara joatea berebizikoa zela; bere ikasgaiaren klasean parte hartzeak oso garrantzi handia zuela, baina nire kabuz ere zer edo zer egiteko aukera izango nuela gogoz hartuz gero.

Hainbat gauza komentatu genituen goiz horretan. Ipuin bat sortzearen ideiaz ere hitz egin genuen. Hasiera batean ez nengoen burutazio horrekin guztiz konbentzita, baina lan polita izango zen seguru. Pare bat aste eman zizkidan Eduk, bere ikasgaiarekin zer egin nahi nuen pentsatzeko. Bueltak eman behar nizkion ipuina sortzearen ideiarri edota beste aukera batzuk proposatzeari.

Gure hurrengo hitzordurako banekien, ipuina sortu behar nuela. Lan zaila zen niretzat, inoiz ez bainuen horrelakorik egin. Haurrentzako istorio apropos bat pentsatu behar nuen. Eduri komentatu eta ondo iruditu zitzaion, eta hurrengorako, ipuin berri horren fitxa eraman beharko nion. Nori zuzenduta egongo litzatekeen, zein izango litzatekeen ipuinaren helburua eta zer nolako eta nola kontatu beharko nukeen ipuina, alegia.

Pentsatu nuen adiskidetasunaren inguruko 6 urteko haurrentzako fabula egitea ideia ona zela. Beharbada izango zen! Baina uste baino zailagoa suertatu zitzaidan hurrengo pausua ematea. Irakasleak eskatu zidan, fitxa hori luzatu, eta pertsonaiak finkatu, hauek kokatu, eta ipuinaren hasiera, ildo eta amaiera idaztea.³

Berarekin komentatu dut dagoeneko, baina uste baino gehiago kostatu zitzaidan ipuina idaztea. Pertsonaiak gutxi gora-behera osatu eta antolatu. Imajinazio handia falta zitzaidala ulertu nuen momentu horretan. Uste baino nekezagoa da haur bati zer gustatuko zaion jakitea. Animaliak beti aukera ona izaten dira, baina irakaslearekin hitz egin eta gero, ulertu nuen, adibidez, animaliek ere sexua izan dezaketela. Nola zehaztu dortoka, suge edo gameluak “gizonezkoak edo “emakumezkoak diren? Izenak ere pentsatu behar, eta horretaz gain, gure istorioan garrantzitsuena dena: zein den euren betekizuna ipuinaren barruan.

Ipuin hau idazterakoan, edo idazten saiatzerakoan, gauza asko aldatu izan ditut bidean. Ez zutelako bata bestearekin zer ikusirik, edota besterik gabe, ez nituelako aproposak ikusten. Pertsonaiekin ere gauza bera gertatu zait.

Uste dut euskaraz idatzi behar izanak, zailtasunak ugaritu egin dituela. Hizkuntza bat kontrolatzea zaila izaten da, eta nire kasuan, euskara ez dut menperatzen. Honi, haurrentzako ipuina izan behar zuela gehitzen badiogu, oraindik zailagoa suertatu

³ Ipuinaren fitxa adostua ikusteko eranskinetara jo.

zaidala esan genezake. Haur baten ikuspegia, nahiz eta gu betiere ulertzen saiatu, helduok dugunarekin, ez du zer ikusirik.

Imajinazioa garatzen saiatu naiz ipuin entretenigarri eta dibertigarri bat idazteko asmoz, baina ez dut uste guztiz lortu dudanik.

Grabaketaren kontua ere, ez da erraza izan. Kamera hotz baten aurrean grabatzea zaila da. Haurrekin grabatzeko asmoa banuen ere, ez zitzaidan posible suertatu eta asko aldatuko zelakoan nago.

Dena den, azkenengo “ariketa honetan, nire burua erraztasun handiagoz ikusi dut. Ipuina pentsatzean edota idaztean izan ditudan zalantzak eta buruhaustek ez ditut grabatzerako orduan izan.

Irakasleak esan zidan, balorazio honen aurretik, ipuina grabatzeko gogoia eta ausardia banuen, ebaluazio ordurako bi eredu izango zituela: idatzizkoa, eta ahozkoa. Ideia bikaina iruditu zitzaidan, baina esan bezala, “Turi dortokaren bidaia”-ren ipuina noizbait, haur talde baten aurrean antzeztu nahiko nuke. Txikiek modu berezia dute istorioak ulertzerako orduan, eta gustatuko litzaidake jakitea zer nolako harrera izango lukeen honek. Beharbada iritsiko da eguna.

Pozik nago egindako lanarekin, batez ere, jarraitutasunez egindako lana izan delako. Lan polita izan da pentsatzen ibiltzea hau edo bestea izango ote zuten gustukoago haurrek eta polita izan da baita euskaraz egiteko aukera izatea. Ikasgaia ezberdina izan da, zailtasunak izan ditu, baina gustura egindako lana izan da *Euskara eta bere didaktika I* ikasgai honetan egindakoa.

Espero dut denborarekin idazteko gaitasuna hobetzea, bai eta imajinazioa garatzea ere. Baina batez ere, gustatuko litzaidakeena, helarazteko gaitasuna *hobetzea* izango litzateke; ikasgai honetan zein bizitzan, funtsezko garrantzia duelako.

Pasa den urteko urrian ezagututako Edu Zelaieta Anta izeneko irakasle horrek, hasiera batean zirudiena baino zailagoak ipini dizkit gauzak. Ez ikasgaia aurrera ateratzeko orduan, baizik eta buruari bueltak eta ipuinari norabide ezberdinak bilatzerako orduan.

Nola edo hala, istorio hau aurrera ateratzeko denbora hartu eta horrela egiten saiatu naiz. Hobeto edo kaskarrago egin dudan, irakurri edo entzun duenak bakarrik esan dezake.

...

Eduk, grabaketa erakutsi nion egunean ere, beste gauza bati buruz hitz egin zidan, ikasturtea nolabait amaitutzat emateko: klasearen aurrean jarri eta nire esperientziaz mintzatu. Ideia honi buruz hitz egin genuen garaian, hainbat gauza proposatu zizkidan, ipuina klasearen aurrean kontatzea ideia horietariko bat zen. Bestetik, hemen egiten dudan moduan, ikasturteko balorazioa klasearen aurrean aurkezteko aukera eman zidan.

Aste Santuaren aurretik izan genuen azkenengo bilera hau Eduk eta biok eta oporraldia pasata esan behar nion zein zen neure asmoa. Hasiara batean esan nion ere, ez nekiela seguru ausartuko nintzatekeen klasearen aurrean hitz egiten baina baiezkoa eman nion euskarazko nire irakasleari ideiarri buelta ugari eman ondoren. Maiatzeko euskara klaseren batean sartu, klasea eurekin egin, eta nire esperientzia kontatu behar izango nuen.

Eguna iritsi baino hiruzpalau egun lehenago ia lorik egin gabe egon nintzen urduritasuna zela eta ez zela. Eguna heldu eta klasean aurkeztu nintzen, oraindik oso ondo jakin gabe nola joango ziren gauzak.

Gela jatorra nuela esan zidan Eduk, baita, jakinaren gainean zeudela guztiak nire bisitaren inguruan. Hala eta guztiz ere, niretzat oso zaila zen guztien aurrean jarri eta hitz egiten hastea.

Hala egin behar izan nuen, baina lehendabizi, ikaskide baten dinamizazio jokia izan genuen. Pila bat gustatu zitzaidan jokia; gainera, oso baliogarria izan zelako niretzat klasea ezagutu eta erlazionatzen hasteko.

Hasierako dinamika hau amaituta, Eduk lasaiago ikusi ninduen nonbait eta hitz egitera ateratzeko animatu ninduen nahiz eta berez beste ikaskide baten jokia aurretik egon programaturik. Ideia hona iruditu zitzaidan, egia esateko lasaiago nengoelako, Eduk igarri bezala.

Ikasgelaren aurrean jarri, eta hasierako bi minutuak latzak izan ziren, baina hauek pasata urduritasuna alde batera gelditu zen. Nire esperientzia kontatu nien luze. Egindako lan guztia azalduz eta bidean topatutako zailtasun eta erraztasunez hitz egin nien. Amaitzeko, Eduk, ikaskideak galderak izatekotan egiteko animatu zituen eta hala egin zuten guztiek. Hauek erantzun eta klasea amaitutzat eman genuen.

Esan behar dut esperientzia ederra izan zela. Alde batetik, gela ezagutzeko aukera izan nuelako, eta bestetik talde baten aurrean hitz egiteko nire gaitasuna neurtzeko aukera izan nuelako. Urteak pasa ziren azkenengo alditik eta ez nuen nire burua guztiz gai ikusten. Asko poztu ninduen jakiteak gai naizela, talde oso jatorra dudala eta euskaraz ondo aritu nintzela. Gainera, egindako azken lan honek, ikasturtean egindako lan guztia borobildu duela nonbait...

Ikaskideek nire ipuina irakurtzeko baimena eskatu zidaten. Ipuin hau guztien artean aurkezteaz ere hitz egin zen. Ideia bikainak dira biak. Eduk kontatuko dit azkenean egin dituzten proposatutakoak. Harro egoteko litzateke horrela egingo balute...

3. IKASITAKOAK ZERRRENDATZEN

Ondoren emango dugun zerrendan, ikasleak Euskara bere Didaktika I ikasgaiari ikasi dituenak aipatuko ditu, orain arte azaldutako prozesuaren emaitzak zein izan diren kontzienteki jabetzeko asmoz. Bigarren puntuari bezalaxe, zerrenda hau ere lehen pertsonan egina da eta ikasleak berak adierazitako molde berean (ia-ia irakaslearen zuzentzaile linguistikoa pasatu gabe):

1. Ipuin baten istorioa pentsatu dut: hasiera, ildo eta amaiera.
2. Protagonista eta bestelako pertsonaiak istorioan kokatu ditut.
3. Irudimena garatzen lagundu dit.
4. Haur baten ikuspegiari kokatzen saiatu, hobeto jakiteko nola landu egindako istorioa, pertsonaiak eta abarrekoak.
5. Euskaraz idazterako orduan, ulergarriago eta irakurterazago egiten.
6. Jendearen aurrean mintzatzeko gai naizela jakin dut ikasgai honetan.
7. Ipuin bat kontatzen ikasi dut. Edo beharbada ikasi ez, baina horrela egin eta emaitza gustatu izan zait.

8. Nire lehendabiziko ipuina sortu dut.
9. Egun batez, nire ikaskideen artean egon, hauek ezagutu eta nola egin izan duten lan ikusi dut.
10. Haur Hezkuntza, ikasgaiak gainditzea baino askoz gehiago dela.
11. Euskaraz (berriz ere) pentsatzen eta nolabait bizitzen ikasi dut.

4. ONDORIOAK

Orain arte azaldu dugun esperientzia didaktiko honetan hiru ondorio ateratzeko moduan gaudela pentsatzen dugu ikasleak eta irakasleak: (i) euskararen didaktika gaztelaniazko adarrean (ere) lantzea posible dela, (ii) irakasle eta ikasleen arteko lanak ikasturtean zehar gauzatzea posible dela, eta (iii) arestiko lanetan lehen mailako ikasleak inplikatzeko posible dela.

Arestiko hiru puntu hauek direla eta, hain zuzen, eztabaida sortu nahi genuke, beste ikasle eta irakasle batzuek iritziak nola ikuspegiak biltzeko asmoz. Ageri denez, guk geureak adierazi ditugu artikulua honetan, izerdi eta tinta zerbait isurita, hizkuntza komunikatzeko erabilita. Nekane Goikoetxeak bere tesian nahiz ondoko lan dibulгатiboago batean adierazi duen legez, gu ere hizkuntzaren kalitatea parametro komunikatiboetara ekartzen saiatu gara (Goikoetxea 2007 eta 2008). Nolanahi ere den, oraindik, ikasleen errendimendua bultzatzeko eta neurtzeko orduan, gaitasun komunikatiboaren osagaiak lanketa zehatz eta sakonagoa behar dute. Hitz batez, irakasle eskoletan hizkuntzaren didaktika lantzeak gaitasun komunikatiboa esplizituki garatzea dakar ezinbestean.

Bukatzeko, desio bat ere adierazi nahi genuke talaiara apal honetatik: segi dezatela ikasleen eta irakasleen arteko lanek denok elkarrekin ibili behar izaten ditugun bidezidorrak hobeki egin ditzagun.

5. BIBLIOGRAFIA ETA INTERNETGRAFIA

Camps, A. (2003). "Proyectos de lengua entre la teoría y la práctica" in *Secuencias didácticas para aprender a escribir*. Grao. Bartzelona.

Canale, M. & Swain, M. (1980). "Theoretical bases of communicative approaches to second language teaching and testing". *Applied Linguistics 1*, 1-47.

Canale, M. (1983). "De la competencia comunicativa a la pedagogía comunicativa del lenguaje", en M.Llobera (ed) (1995), *La competencia comunicativa*. Edelsa, Madril. 63-81.

- Garzia, J. (2008). *Jendaurrean hizlari*. Alberdania. Irun.
- Goikoetxea, N. (2007). *Gaitasun komunikatiboa eta hizkuntzen arteko elkar eragina EAEko hezkuntza eleanitzetan*. EHU. Bilbo.
- Goikoetxea, N. (2008). "Gaitasun komunikatiboa lantzeko proposamena". *HIZPIDE* 69, 86-105.
- Hymes, D.H. (1972). *On communicative competence*. Philadelphia: University of Pennsylvania Press.
- Labayen, P. (2001). "Sekuentzia didaktikoak: definizioa eta funtzionamendua". *HIK HASI* 60, 30-37.

<http://www.irakasleen-ue-gasteiz.ehu.es/p252home/eu/>

http://docentes.leer.es/files/2009/05/art_prof_ep_eso_escribiresrecribir_dolzscheneuwly.pdf

6. ERANSKINAK

1. Eranskina: FITXA, IPUINA SORTZEN

Ipuin hau, **laguntasunaren inguruko istorioa da**. Hori da behintzat lortu nahi dugun helburua. Haurrak, eta hain haurrak ez garenok, askotan, pentsatu izan dugu adiskidetasuna gure ingurukoaren artean aurkituko dugula. Maiz, klasean ezagutzen ditugunen artean topatuko ditugulakoan gaude. Gure antza dutenen artean, gure auzoan bizi direnak, gu bezalako inguruetan mugitzen diren horiek.

Ez dago oso argi noiz adostu zen hori horrela izan behar duela. Gehienetan, gutxien espero dugun horietan aurkitzen dugu bilatzen dugun edota behar dugun adiskidetasuna.

Gure **helburua**, izan behar du, haurrak jakin dezaten, beti gauzak ez direla uste dugun moduan. Ez dugula zertan itxuran, azalaren kolorean, non jαιο garen tokian edo bestelako baldintzak kontuan hartu behar.

Ipuin hau, **lehenengo irakurleentzat** pentsatuta egongo da. **6 urtetik gorako** haurrentzat pentsatuta alegia. Ez da mezu zaila ulertzeko, baina, txikiagoentzat, bestelako kontuak tratatzea egokiagoentzat dugu.

Fabula moduan kontatzeko asmoa dago, argiago ikus dezaten animalien kasua. Etengabe ikustera ohituta ez gauden animaliak aukeratu ditugu. Baliteke hurrei arrotz samar suertatzea, baina animalia bitxi eta bereziak ere badira aukeratutakoak.

NON KOKATU, PERTSONAIAK:

Dortokak elkarrekin joateko ohitura izaten dute, eta basamortua zeharkatzea zaila izango da dortoka familia batentzat non kide gazteenari ez zaio erraza suertatuko familiarekin batera jarraitzea.

Turi dugu gure protagonista nagusia. Dortoka txikia da oraindik eta bestelako dortokak baino motelagoa, edo hori da behintzat berak uste duena.

Afrikako iparraldean bizi da familia osoarekin. Bizi diren herri hori, txikia suertatzen zaielarik, bidai bat egitea adosten dute familiako nagusienek, hurrei iritzirik eskatu gabe. Bizitzeko beste toki baten bila abiatuko dira.

Aurreko egunean, Turik, beste bi lagunek konbentziturik, bestelako bide bat jarraitzea erabakitzen du. Askotan ibiltzen da amarekin haserre Turi. Motel ibiltzen dela dio, baina berak ez du uste horrela denik. Dira direla, lagunekin joatea hobe izango dela uste du gure protagonistak. Egia esanda, lagunaren proposamena onartzea kostatzen zaio. Ez du argiegi ikusten bestelako bide hori egitearena nahiko beldurtia baita gure Turi.

Azkenengo momentuan lagun horietariko bat ez da aurkeztuko, Turi eta beste laguna bakarrik utzita. Abentura, biek bakarrik jarraitu beharko dute.

Denborarekin, kontraturatuko dira, kontrako bidea ari direla egiten eta basamortua zeharkatzen daudela. Bertan, beste hainbat animaliarekin topatuko dira. Batzuk laguntza eskainiko diete, beste batzuk ez hainbeste.

- **Sugea:** Berehala egingo dute topo berarekin, eta gomendatuko die familia topatu eta bueltatzeko. Presa izateak ez darama inora, eta batzuetan gauzak patxadaz hartu behar dira ondo atera daitezen.
- **Kameleioia:** Izaturik eta galduta dago. Familia topatzeko esperantzarekin dabil desertutik gora eta bera. Turi eta bere lagunaren kontrako egoeran dagoela

esan genezake. Ura topatuko ez duenaren beldur da. Turiren laguna, kameleoi honekin alde egingo du, askoz ere arinagoa delako, eta berehala toki guztietara iritsiko direlakoan.

- **Gamelua:** Turi bakarrik aurkituko da. Dagoeneko, bidaia jarraitzea edota buelta ematea eta familiaren bila itzultzea oso zaila ikusten du. Gamelu batekin egingo du topo egoera honetan aurkitzen delarik zein gure protagonista lagunduko duen tokira iristen eta bere familiarekin topatzen.

Hauek izango dira basamortuan zehar aurkituko ditugun pertsonaiarik garrantzitsuenak gure istoriorako.

Hasieran, Turiren familia eta lagunak izango dute garrantzia. Gero, desertuan aurkituko dituen lagunak irabaziko dute garrantzi hori eta amaierarako batzuk eta besteak aurkituko dira bidaiaren amaieran.

2.Eranskina: TURI DORTOKAREN BIDAIA

TURI DORTOKAREN BIDAIA

Turi, dortoka txikia zen. Baliteke bere adin bereko dortokak baino txikiagoa izatea. Dortokak, agian jakingo duzue, animalia motelak dira. Mantso-mantso ibiltzen dira alde batetik bestera. Mantso eta poliki. Turiren ustetan, bere lagunak baino motelagoa da bera, bere hankak apurtxo bat motzagoak zirelako. Horregatik uste zuen ezin zuela besteen erritmoa jarraitu. Baina ez zen horrela izaten, askotan, handiagoak direnak baino azkarragoa baitzen. Gutxiago pisatu eta azkar zebilen gure Turi!

Herri txiki batean bizi zen Turi, bere familia eta beste dortoka askorekin. Lurreko dortokak ziren eta bizi ziren herria txikiegi gelditzen zaie guztiak ondo bizitzeko bertan. Itsasoan biziko balira, ez lukete horrelako arazorik izango; hori da behintzat turik pentsatzen zuena.

Egun batean, amak zera esan zion Turiri:

- Laztana, herri hau utzi, eta bizitzeko beste tokiren bat bilatzera abiatuko gara. Hasieran, Turik pentsatu zuen, beharbada, itsasora alde egingo zutela, baina gero, ulertu zuen zaila eta neketsua izango zela bertan bizitzea, lurreko dortokak izanda. Ez dakit

jakingo duzuen, baina, uretan ibiltzen diren dortokak daude, eta bestetik, lurretik ibiltzen direnak. Turi eta bere familia eta lagunak lurretik ibiltzen diren horietariko dortoka motakoak dira.

Gure dortoka txikiak bi lagun-min ditu. Kadi eta Ziriko deitzen dira eta oso ondo konpontzen da gure protagonista biekin. Kadi neska da, eta Ziriko berriz, mutila, Turi bezala. Biekin ondo moldatzen bada ere, Zirikorekin duen adiskidetasuna handiagoa da. Beharbada, biak mutilak direlako izango da hain ondo konpontzen direla.

- Turi, herritik alde egingo dugu laster – esan zion Zirikok behin.
- Badakit Ziriko, amak esan dit. Uste dut itsasoan bizi behar dugula – erantzun zion Turik.
- Nola biziko gara, bada, itsasoan, lurreko dortokak bagara? – galdetu zuen momentu horretan Kadik.

Hitz egin eta hitz egin ondoren, hiru lagunek erabaki berbera hartu zuten: hurrengo egunean, goizez, gauzak hartu eta itsasoaren bila abiatuko ziren bertan dortoka guztiak bizitzeko adina toki izango duen itsaso batera.

Aita eta amari ezer esan gabe alde egin zuen Turi etxetik. Goizean goiz, bere bi lagunekin geratua zegoen.

Geratutako tokira heldu zen Turi, eta bertan Kadi bakarrik zegoen. Ziriko bidaiarekin beldurtuta, etxean gurasoekin gelditzea erabaki duela azaldu zion Kadik Turiri.

Biak bakarrik zeuden bidai horretan. Beldurra ere bazuten, baina bizitzeko tokia bilatu nahi zuten, gero familia eta lagunak bertan bizi zitezen. Guztiak elkarrekin bizitzea nahi zuten Turi eta Kadik.

Ez zuten oso argi zein zen jarraitu behar zuten bidea itsasora heltzeko, baina abiatu ziren bere bila. Bidaia luzea izango zen hasi behar zutena.

Ibiltzen hasi ziren, beldurra era bazuten, nahikoa janari izango ote zuten bidaia egiteko, baina ez zitzairen gehiegi kezkatzen ere, bidetik aurkituko zuten janariaz pentsatzen.

Ez zekiten seguru noiz ikusiko zuten itsasoa, baina bazekiten topatuko zutela. Ibiltzen eta ibiltzen egon ziren, mantso-mantso. Presarik ez zuten: dortokak dira eta!

Egunak pasa ahala, goizez ibili, eta gauez lo egiten bazuten ere, nekatuta sentitzen ziren askotan. Bazekiten bidaia gogorra izango zela, baina ez horrenbeste! Familia faltan sumatzen zuten, baina ausartak izan behar zirela uste zuen Turik.

Kadi oso nekatuta zebilen. Turi, itxuraz txikiagoa bazen ere, bera baino azkarrago ibiltzen zen baso, laku eta mendietan zehar. Oraindik ez zute itsasoa ikusi eta Kadi oso, oso nekatuta zegoen.

Egun batean, norbait jarraika sumatu zuten. Hasiera batean, izutu egin ziren biak, baina aurrera jarraitu zuten euren bidea.

- Turi, norbait dugu atzetik jarraika – esan zuen Kadik
- Lasai, hemen beste animalia batzuk bizi dira, normala da norbait jarraika izatea. Nik ez dut ezer ikusten. – erantzun zuen Turik lasai-lasai.

Egun horretan bertan, gauez, basamortura heldu ziren bi lagunak. Egunak pasa ziren etxetik alde egin zutenetik, eta itsasoa topatu beharrean, basamortuan ikusi zituzten beren buruak. Hurrengo egunean goizez, pentsatu beharko zuten bide hori jarraitu edo atzera bueltatu beharko zuten. Beharbada galdurik egongo ziren eta.

Beldurtuta esnatu zen Kadi gau horretan. Norbait hitz egiten zegoen. Izututa, Turi esnatu zuen:

- Turi, turi! Esnatu zaitetz! Esnatu! Norbait dago hizketan! Entzuten duzu? Turi!!! Entzuten duzu?! – esan zion Kadik Turiri belarrira.
- Bai, entzuten dut. Galdetuko dugu ea nor dabilen hortik, ados? – erantzun zuen Turik.
- Nor dabil hor? – esan zuten bi lagunek batera.

Bat-batean, suge bat ikusiko zuten parez pare:

- Kaixo, ez beldurtu, ez dizuet minik emango. Badakit sugeok fama txarra dugula, baina gauzak ez dira beti kontatzen duten moduan – esan zuen sugeak – hemen bizi naiz, nondik zatozte zuek? Galduta ikusten zaituztet!
- Gure herria utzi dugu, itsasoa bilatzen ari gara – erantzun zion Turik.
- Kar, kar, kar, – egin zuen barre sugeak - hemen ez duzue ba itsasoa topatuko! Basamortuan zaudete!
- Badakigu – esan zuen orduan Kadik – nondik joan beharko dugu aurkitzeko?

- Oso txikiak zarete itsasoa bakarrik bilatzeko. Gainera, lurreko dortokak izanda, ez dakit nola biziko zareten itsasoan. Beharbada, igeri egiten ere ez duzue jakingo. Buelta eman, eta gurasoekin itzultzea izango da hoberena. Galduta zaudete dagoeneko.
- Baina, gure gurasoak eta taldeko dortoka guztiak, beste herri baten bila abiatu dira. Ez ditugu aurkituko. – esan zuen Kadik, sugea entzun eta gero, pixka bat beldurtuta familia berriz ere ez ikustearren.
- Beno, bada, orain, lo egin, eta bihar pentsatuko dugu zer egin. – gomendatu zuen sugeak.

Hirurak lo gelditu ziren, basamortuan etzanda, izarrei begira. Hurrengo egunean zer egin beharko zuten esango ziela sugeak, pentsatu zuen Turik lokartu aurretik.

Hurrengo egunean, herrira bueltatzea erabaki zuten bi lagunek, sugeak konbentziturak. Familiaren falta sumatzen zuten, ez zuten oraindik itsasoa ikusi eta ikusteko esperantzak galtzen hasiak ziren. Sugea agurtu, eskerrak eman, eta egindako bidea desegiten hasi ziren.

Bat-batean, sekula ikusi ez zuten animalia batekin egin zuten topo. Basamortuko areak duen kolore berdina zuen animalia horrek. Tamainaz zen da oso handia, baina pixka bat beldurtu ziren honen aurrean jartzean, ez zekiten zer zen eta.

- Kaixo! -Esan zuen bat-batean animalia bitxi horrek
- Zer zara zu! – oihukatu zuen Kadik – oso kolore berezia duzu!
- Kamaleoia naiz ni. Nahi dudana kolorea izan dezaket, nahi dudana momentuan, nahi dudana itxura hartzeko.
- Nola da hori posible?! – galdetu zuen Turik harrিতuta.
- Nire azaleko berezitasuna da. Zuek oskol hori duzuen bezala, nik azaleko kolorea aldatu dezaket.

Kamaleoi izeneko animalia horrek azaldu zien, bera ez zela basamortutik oso urrun bizi, baina hori ez zela bere tokia. Turik eta Kadik kontatu zioten nola alde egin zuten etxetik eta dagoeneko bueltatzeko bidea jarraitzen zeudela, baina beldur zirela berriz ere galtzeko. Familia utzi zute itsasoa bilatzeko, eta galduta zeuden, ez zekiten bueltako bidea aurkituko zuten ezta familia utzitako herrian topatuko zuten!

- Txotx gamelua aurkitu behar duzue. Oso ondo ezagutzen du basamortu hau. Berak lagunduko zaituzte. Bidaia luzeak egitera ohituta dago. Bere konkorretan ura gordetzen du eta egunak pasa ditzake ibili eta ibili ura edan gabe. Topatu ezazue eta bueltatzeko laguntza eskatu.
- Nola aurkituko dugu, baina? – galdetu zuen Turik-
- Lasai, nik lagunduko zaituztet, nire etxerako bidean zehar topatuko dugu, seguru.

Hirurak abiatu ziren Txotx izeneko gamelu horren bila. Laguntza eskatu behar zioten, baina ez zekiten seguru prest egongo ote zen laguntzeko.

Basamortuan zehar zebilela hiru lagunak, gamelu talde handi batekin egin zuten topo.

- Txotx!!! – oihukatu zuen kamaleoiak – Txotx, lagun, zure laguntza behar dugu. Talde horretan zegoen gameluetako bat, Turi, Kadi eta kamaleoia zeuden tokiraino hurbildu zen jakin minez.

Bi dortekek azaldu zioten orduan aurrean zuten gamelu handi horri zergatik zeuden bera bilatzen. Gamelua, hasiera batean, ez dago oso seguru, baina azkenean, laguntzeko prest zegoela esan zien bi lagunei.

Kamaleoia agurtu zuten lagunek, bere etxerako bidea jarraitzea erabaki zuelako eta bere herrirako bidea hartu zuten Kadi eta Turi, Txotx gameluak lagunduta.

Ez dakit inoiz ikusi ote duzuen gamelurik, beraz, jakin behar duzue, oso hanka luzedun animalia dela gamelua, oso handia, dortokak baino askozaz ere handiagoa. Bidea, bere gainean eginda, motzagoa izango zelakoan, bere gainera igotzea lortu zuten. Gameluak, lurrean esertzeko erraztasuna badutenez, dortekek ez zituzten arazo handiegirik izan bere gainera igotzeko.

- Beldur naiz, Kadi – esan zuen Turik – eta gure familia eta talde guztiak alde egin badu beste herri baten bila? Eta etxera itzultzen bagara eta ez badaude bertan? Zer egingo dugu orduan? – esan zuen Turik kezkatuta.
- Ez beldurtu, haurrak. Familia eta lagun guztiak topatuko ditugu, basamortu guztia zeharkatu, eta mendiak zeharkatu behar baditugu ere, aurkituko ditugu – esan zien orduan Txotx gameluak.

Turi eta Kadi, lasaiago gelditu ziren gameluaren hitzak entzunda, bazekiten, familia topatu arte, beraiekin geldituko zela Txotx.

Egunak pasa, eta basamortua atzera utzi zuten bi dortokek. Ezagututako sugea eta kamaleoia gogoratu zituzten bi lagunek. Basamortu urrun horretan, bi lagun egin zituzten. Ez zekiten bueltatuko ote ziren noizbait, baina bazekiten bertan, asko lagundu zituzten bi lagun garrantzitsu zituztela. Hasieran beldurtu zituen sugeak, lagun on bat bezala portatu eta etxera bueltatzeko gomendioa eman zien. Suge horrengatik izango ez bazen, oraindik ere galduta ibiliko ziren! Eta kamaleoi izeneko animalia bitxi eta eder horrek Txotx gamelua aurkitzen lagundu zien!

Etxera bueltako bidaia jarraitzen zutela, Turi eta Kadik ondo ulertu zuten zergatik Zirikok erabaki zuen etxean gelditu. Beldurra izatea normala da. Eta naiz eta asmoa ona izan, arriskutsua zen oso, egiten zeudena.

Bat batean, Turik, ezagun egiten zitzaion ahots bat entzun zuen urrunean.

- Txotx, ikus dezakezu nor datorren? Ahots ezaguna duela uste dut!

Gameluak aurrera begiratu eta dortoka talde handi-handi bat ikusi zuen bere aurrean. Ehunka dortoka ikusi zituen. Mantso-mantso ibiltzen. Mantso eta poliki baina gelditu gabe.

- Kadiiiiiiiiiiiiiiiiiii! Turiiiiiiiiiiiiiiiiiiii! – Ziriko zen, bere bi lagunak izenak oihukatzen zegoena.

- Kadiiiiiiiiiiiiiiiiiiii! Turiiiiiiiiiiiiiiiiiiii!

- Hemen gaude! Hemen gaude! – Hasi ziren bi lagunak oihuka baita ere.

Dortoka taldea beldurtu zen Turi eta Kadi gamelu handi horren gainean ikustean. Ez zuten ezer ulertzen. Zergatik egongo ziren hor gainean igota? Nondik agertu zen gamelu hori? Galdera mordo bat zituzten egiteko. Guk badakigu galdera horien guztien erantzuna, baina familia eta lagunak ez zuten ezer ulertzen, imajinatuko duzuenaz.

Txotx, poliki-poliki, lurrera jaitsi zen, bertan eseri eta bi dortoka txikiek bere taldearekin topatu ziren azkenean.

Zirikok oso urduri, azaldu zien nola ibiliak ziren bila etengabe. Alde egin zuten egunean, familia eta talde guztiak erabaki zuten ez zutela alde egingo Turi eta Kadi

gabe ez beste herri batera ez inora. Eta ordutik hona, bere bila ibili zirela. Nahiz eta Turi eta Kadi beldurturik egon, nola egingo zuten alde familiakoek beraiek gabe? Pentsatuko duzue, ezta? Baina, hori zen bi dortoka lagun horien kezka nagusiena.

Turi eta Kadik, bere aldetik, bizitako esperientzia guztia kontatu zieten familia eta lagunei. Nola guztiak bizitzeko itsaso baten bila joan ziren, baina itsasoa ez zutela topatzen eta ia familia galtzeko arriskuan egon zirela.

- Nola uste duzue alde egingo genuela zuek gabe? Bila ibili gara egun hauetan guztietan. Oso kezkatuta geunden. Eskerrak Ziririk esan zigun zein zen zuen asmoa! Itsasoan bizitzea! Nola bururatzen zaizue horrelakorik? Lurreko dortokok ur azpian ezin gaitzke bizi, seme. – Esan zion amak, Turiri.

Azkenean, beste herri baterako bidea egin zuten, bertan bizitzera. Orduan, momentu horretan, bazekiten, euren tokia bere familia eta lagunen ondoan zegoela. Herri batean edo bestean.

Beharbada noizbait, bueltatuko ziren basamortura, bertan ezagutu zituzten animalia guztiak bisitatzera, baina behingoz, etxerako bidean zeuden. Familiakide eta betiko lagun ondoan.

Hala bazan edo ez bazan, sar dadila kalabazan

eta atera dadila basamortuko plazan.